

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

UPNk lortu ditu Nafarroako Parlamenturako boto gehien eta 19 ordezkari Parlamentuan; atzetik geratu dira PSN (9), NaBai 2011 (8), Bildu (7), PP (4) eta IE (3)

Botoen % 100 zenbatu da

Domingo, 22 de mayo de 2011

Unión del Pueblo Navarro alderdiak (UPN) jaso ditu Nafarroako Parlamenturako boz gehien; % 34,5eko babesa izan du, beraz, 19 ordezkari lortu ditu. Atzetik honako hauek geratu dira: PSNk 9 parlamentari lortu ditu (bozen % 15,9), NaBai 2011k 8 (% 15,4), Bilduk 7 (% 13,2), PPK 4 (% 7,3) eta Izquierda-Ezkerra koalizioak 3 (% 5,7). Horixe

jakinarazi du Javier Caballero lehen presidenteorde eta Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariak hedabideen aurrean egin duen agerraldian.

Bozen % 100 zenbatuta, Verdes/Nafarroako Berdeak, Unión Progreso y Democracia (UPyD), Solidaridad y Autogestión Internacionalista (SAIN), Convergencia de Demócratas de Navarra (CDN), Iniciativa por Navarra (IXN), Representación Cannábica de Navarra-Nafarroako Ordezkaritza Kanabikoa (RCN-NOK) eta Derecha Navarra y Española (DNE) alderdiek ez dute ordezkariarik lortu. Emaitzak behin-behinekoak izango dira asteazkenera arte, orduan egingo baitute azken zenbaketa.

Caballero presidenteordeak Nafarroa osoa zoriondu du gaur "gizatasun eta demokraziaren eredu izateagatik", baita irabazleak eta Parlamentuan eserlekuak lortu dituztenak ere. Gobernuak, "gardentasunaren eredu" izate aldera, herritarrei eta hedabideei zenbaketaren datuen berri zuzenean eman diela adierazi du. Barkamena eskatu du sistemak aldizka izan dituen hutsegite eta akatsengatik, une batzuetan zenbaketako datuen berri izateko konexioa galdu baita.

Huteskunde hauetako partaidetza ia % 70ekoa izan da, hau da, 2007ko huteskundeetako baino bost puntu gutxiago izan ditu; orduan % 75,3koa izan zen.

